

elkarte

56

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2022ko UZTAILA

www.elkartean.org



elkartean

elkartean@elkartean.org

Berdintasunerako Lege Berria



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoen erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

KEMEN

Pertsona ezinduen kirol kluba

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrocefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

ARGITARATZAILEA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOAK DUTEN
PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua

OROKORRA

Berdintasunerako lege berria

4

- 5 • Osakidetzako LEP.
- 6 • Etxebizitza-eskubide subjektiboa eta desgaitasuna duten pertsonak.
- 8 • Katalogo ortoprotesikoa.
 - Eae-ko mugikortasun jasangarriaren Lege-proiektuari egindako ekarpenak.
- 9 • Gazteriaren Legean jasotako ekarpenak.
- 10 • Minbizia edo gaixotasun larria duten haurrentzako laguntzak luzatzea.

ARABA

- 11 • Desgaitasunaren baremo berria.
 - Boluntarioen azoka.
- 12 • Lanerako ezintasuna eta desgaitasuna parekatzea.
- 13 • Argi ikusten ez baduzu, ez egin salto.
- 14 • Elkarteen jardunaldia.
- 14 • Komun publikoak.
- 15 • Etxebizitza egokituak.

BIZKAIA

- 16 • Enplegua Fekoorekin.
 - 2021eko jardueren memoria.
 - Bilboko TAO berria.
- 17 • Zorionak BENE eta EMAN ESKUari.
 - Gizarte-mentoretza.
 - Praktikak trukatzea.
- 18 • Hondartza-denontzat Hondartza-zerbitzua.
- 19 • BBC Bartzelona I. Kongresua.
 - Eztabaida zibilerako Bizkaiko mahaia.
 - Ondarearen Europako Jardunaldiak.
 - GIZATEK-Laguntza-produktuetarako laguntzak.

GIPUZKOA

- 20 • Bilera Gizarte Politiketako Departamentuarekin.
- 21 • Enplegu publikoa egonkortzeko prozesua.
 - Bilera mugikortasuneko zinegotzigoarekin.
- 22 • Parte-hartze prozesua: desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzak.
 - Bide publikoan dauden terrazei buruzko ordenantzak.
- 23 • Itzuli dira Elkarbidean programako bidaiak.
- 24 • Altzako polikiroldegi berria.

BERDINTASUNERAKO LEGE BERRIA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 1/2022 Lege berriak Elkarteanen ekarpen batzuk jasotzen ditu desgaitasun fisikoa duten emakumeen errealitateari eta premiei dagokienez, eta hori berdintasunaren bidean aurrera egitea da.

Besteak beste, honako alderdi hauek biltzen ditu:

1 “Emakumeen aurkako indarkeria matxista” terminoa, genero-indarkeria terminoaren orde. Kontzeptu berri horrek edozein erasotzailearen indarkeria-mota guztiak biltzen ditu.

2 Printzipio orokorretan **beren-beregi aipatzen ditu** interseksionalitatea, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, emakumeen ahalduntzea haien aniztasuna kontuan hartuta, eta parte-hartzea; horretarako, irisgarritasun unibertuala bermatuko duten espazioak eta partaidetza-bideak egokitu edo sortuko dira.

3 Indarkeria matxistaren aurrean erakundeek ematen duten erantzuna egokitu **beharra ezartzen du**, indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeek arreta integrala, egokitua, doakoa eta kalitatezkoa jasotzeko duten eskubi-

dea ziurtatzeko, haien egoera edozein dela ere, eta, bereziki, kalteberatasun handiekin daudenean.

4 Diskriminazio anizkoitza eragiten duten beste aldagai batzuen eragina ezagutzea ahalbidetzen duten **adierazleak eta mekanismoak sartzen ditu**.

5 **Bereziki kontuan hartzen du** kontratazio publikoan, dirulaguntzetan, plan sektorial eta estrategikoe-tan, enplegu-zerbitzuetan eta prestakuntza-planetan, laneko segurtasun eta osasun-sisteman eta indarkeria matxistaren arloan, besteak beste, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen faktoreak (desgaitasuna, esaterako) dituzten emakumeen egoera.





EPE
OPE
2018
2019

OSAKIDETZAKO LEP

Elkarteanek Osakidetzako 2018-2019ko LEPko lotura estatutario finkoa lortzeko oinarrien aurkako errekurtsoa jarri zuen, zuzenbidearekin bat ez zetozela eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak kaltetzen zitzutela iritzita. Oinarri horiek 2021eko abenduaren 14ko EHAAn argitaratu ziren.

Zehazki, funtsezko hiru alderdiren inguruko aldaketak proposatu ginen:

1 Testu osoan “**desgaitasuna duen pertsona**” terminologia erabiltzea eskatzen genuen, “desgaitua” edo beste termino batzuk erabili ordez; izan ere, adiera iraingarriak dira eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak ezartzen dituen lege-manuen aurkakoak, desgaitasunaren ikuspegi medikoari lotutako konnotazioak baititu, egoera horretan faktore funtzionalek zein sozialek elkarri eragiten diotela kontuan hartu gabe.

2 Desgaitasuna duten hautagaiek lanpostua betetzeko gaitasuna egiaztatzeko egin behar duten **osasan-azterketa bikoitza ezabatzeko** eskatu genuen, gainerakoekin alderatuta diskriminatzailea baita. Gehienaz ere, gure ustez, lanbide-kategorian eginkizunak baldintza berdinetan behar bezala betetzeko hartu

behar diren egokitzapenak, arrazoizko doikuntzak eta laguntzak bakarrik baloratu beharko lirateke.

3 Ekintza positiboko neurriak proposatu — **genituen destinoa esleitzerakoan**, baldin eta eraikinetan eta garraio publikoan irisgarritasun-gabeziak badaude, lanpostuak egokitzeko oztopoak badaude edo laguntza pertsonalak emateko baliabide nahikorik ez badago.

Hala ere, **Osakidetzak ezetsi egin** zuen jarritako gora jotzeko errekurtsoa, oinarriak indarrean zeuden arauekin bat zetozela iritzita. **Elkarteanek** etsigarritzat jo ditu hartutako erabakia eta horren oinarri diren argudioak; izan ere, atzerapausoa da desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa berdintasun-baldintzetan eskuratzea lortzeko bidean.

Hori dela eta, gizartean eta politikan eragiteko lan sendoa egiten jarraituko dugu, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta ekintza positiboko neurriak har daitezen bultzatzeko, desgaitasuna duten pertsonen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako baldintzetan lan arrunta eskuratu ahal izateko dauden oztopoak gaintitze aldera.

ETXEBIZITZA

ESKUBIDE SUBJEKTIBOA

ETA DESGAITASUNA DUTEN

PERTSONAK

Elkarteanek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailera jo du, etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko irizpideak alda ditzaten eskatzeko urteko diru-sarrera haztatuak kalkulatzekoan.

Zuzkidura-bizitokiak erabiltzen zituzten desgaitasuna duten pertsona batzuei urteko diru-sarrera haztatuei buruzko baldintza ez betetzeagatik, hau da, administrazioaren bidez ezarritako diru-sarreraren gehieneko muga gainditzeagatik etxebizitza-eskubide subjektiboa ukatu zitzaie jakin ondoren gauzatu da jarduketa hori. Pertsona horiei eskubidea ukatu zitzaien nahiz eta kotizaziopekoa ez den pentsio baten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun baino ez izan.

Eskubidea ukatu zitzaenez, ezin zuten etxebizitzan jarraitu zuzkidura-bizitokiaren erabilera lagatzeko epea amaitu ondoren, eta, beraz, etxebizitza uzteko prozedurari ekin zitzaion. Etxebizitzaren arloan eskumena duen erakundeari adierazi zitzaion bezala,



“administrazio-jardun horrek bizitegi-bazterketako arrisku-egoera eragiten die interesdunei; izan ere, zuzkidura-bizitokia utzi behar dute etxebizitza duin, egoki eta irisgarri baten bermea izan gabe, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean ezarritakoaren arabera, gabezia larria baitago beharrezkoak diren irisgarritasun-baldintzak dituzten bizitokien etxebizitzamerkatuan, mugikortasun urriko pertsonen beharrei erantzun egokia eman ahal izateko”.

Beraz, **Elkarteanek** bi proposamen egin zituen urteko diru-sarrera haztatuen kalkulari buruz, kalteberatasun handieneko egoeran dauden desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza-eskubide subjektiboa bermatu ahal izateko:

- Pentsioen eta prestazioen hirugarren pertsona baten beharrianagatiko **osagarriak ez zenbatzea**.

- Pentsiodunen kasuan, **diru-sarrerak bermatzeko errenta ez zenbatzea**.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bere erantzunean adierazi zuenez,

“aplikatzen den irizpidea da hirugarren pertsona baten laguntzaren beharrianagatiko laguntza-osagarriak ez zenbatzea etxebizitza babestua eskuratzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eskatzen diren diru-sarrera haztatuen kalkuluan. Alderdi hori interesdunak aurkeztu behar du”. Bigarren gaiari dagokionez, adierazi duenaren arabera “etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa arautuko duen dekretua onartuta, baldintza gisa ezarritako gehieneko diru-sarreraren mugak handitu egingo dira eta arazo hori konpondu egingo da. Ordura arte, kolektibo horri ez zaio diru-sarreraren gehieneko muga aplikatuko, baldin eta gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatzen bada eta bestelako diru-sarrerak daudela egiaztatzen ez bada”.

Elkarteanek pozik hartu du Eusko Jaurlaritzako Sailak hartutako irizpidea, lagungarria izango baita kalteberatasun ekonomiko handieneko egoeran dauden desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko eskubide subjektiboa bermatzeko.



Katalogo ortoprotesikoa

Osasun Ministerioak 2022ko urtarrilaren 29ko BOEn argitaratu du Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komun en zorroa eta eguneratzeko prozedura ezartzen dituen eranskina berritzen duen Agindua.

Eguneratzeari esker, prestazio ortoprotesikoaren katalogo komuneko produktu berriak Estatuko Osasun Sisteman sartuko dira. Horrela, edozein etiologiako bizkarrezur-muineko patologia edo gaixotasun neuromuskularra duten pertsonentzako **gurpil-aulki mota berri bat sartu da**, bizitza aktiboa izaten laguntzeko.

Linfedemaren tratamendurako jantzi mota berri bat ere gehitu da. Jantzi horiek, autooigarriak direnez, ezaugarriengatik ehun elastikoko jantziak erabili ezin dituzten pertsonen erabil ditzakete.

Autonomia-erkidegoek 6 hilabeteko epea dute, agindu hau indarrean jartzen denetik, hau da, uztailaren 30era arte, beren zerbitzu-zorroak arau honetan xedatutakora egokitzeko. Osasun Sailak jakinarazi duenez, autonomia-erkidegoko katalogoa egokitzeko prozesuan dago Euskadi.

Elkarteanek Eusko Jaurlaritzari jakinarazi dio beharrezkoa dela elkarrekin lan egitea katalogo ortoprotesikoa eguneratzeko, gaur egun biltzen diren laguntza-produktuak sendotzeko, ikuspegi berritzaile batetik autonomia pertsonala sustatzen duten produktuak eskuratu ahal izatea bultzatzeko, eta laguntza-produktu duinak, egokiak eta beharizan partikularretara egokituak lortzeko baldintzak eta eskakizunak ezartzeko, desgaitasunaren gainkostua bultzatu gabe.


Eae-ko mugikortasun jasangarriaren Lege-proiektuari egindako ekarpenak

Elkarteanek ekarpenak aurkeztu dizkio Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den EAEko mugikortasun jasangarriaren proiektuari, uste baitu beharrezkoa dela bertan sartzea desgaitasuna duten pertsonen mugikortasunerako eskubidearen bermeari buruzko ikuspegia, irisgarritasun unibertsaleko baldintzak berma daitezen eta garraio publikoen irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia benetan bete dadin.

Ildo horretan, definizioen artean irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua eta pertsona guztientzako diseinua sartzea proposatu dugu, Euskadin aukera-berdintasuna bermatuko duten mugikortasun-politikak bultzatzeko konpromisoaren erakusgarri.

Era berean, **irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dauden** arauak betetzeko betebeharra berariaz sartzea proposatu dugu, honako gai hauetan: oinezko joan-etorriak eta motorrik gabeko bitartekoak sustatzeko politikak, garraiobideak eta haien azpiegiturak, mugikortasun jasangarria planifikatzeko tresnen diseinua, edo hirigintza-plangintzako neurriak.

Azkenik, tarifa-sistema diseinatzerakoan desgaitasun-egoerak eta hirugarren pertsonaren beharra kontuan hartu behar direla planteatu dugu.



GAZTERIAREN LEGEAN

Jasotako ekarpenak

Desgaitasuna duten gazteek funtsezko zeregina dute inguruneko baldintzak eraldatzeko lanean, gizarte inklusiboa lortze aldera; izan ere, gainerako gazteek dituzten zailtasun berberak ez ezik, **desberdinkeria** sortzen duten beste muga eta **bazterketa** batzuk ere gainditu behar izaten dituzte.

Horregatik, **Elkarteanek** proposamen multzo bat aurkeztu zuen duela gutxi Gazteriaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea izapidetzean, eta horietako batzuk onartu egin dira azkenean. Bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, eta hezkuntza-, lan- eta kultura-arloetan sortzen diren eta lehengoan irauten duten diskriminazioak, estigmak eta aurreiritziek eragiten dituzten gizarte-desabantailak saihesteko edo konpentsatzeko ekintza positiboko neurriak dira, hala nola:

Desgaitasuna duten gazteek gizartean duten eginkizun aktiboa eta desgaitasunaren ikuspegia testu osoan txertatzea eta ekintza positiboko neurri espezifikoak **txertatzea**.

Irigarritasun unibertsala espazio eta baliabide guztietan **sartzea** (aterpetxeak, pres-takuntza-espazioak...)

Hezkuntza-sistema inklusiboa **ziurtatzea** maila guztietan, baita bizitza osoko irakaskuntza ere.

Desgaitasuna duten gazteen datu estatistikoak eta behar espezifikoak **ikusaraztea**.

Gazteen emantzipazio-prozesuetan “bizimodu independentea bermatzea” kontzeptua **sartzea**, bai eta faktore ekonomikoengatik eta irigarritasunagatik etxebizitza eskuratzeko zailtasun berezia izan dezaketenezako ekintza positiboko neurriak ere.

Emakume gazteak **ikusaraztea** gazteria-politikan, berdintasun-politikan eta indarkeria matxistaren politikan.

Desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten dugun erakundeei politikan parte hartzen dutela **bermatzea**, bai eta gazte-elkartetan, Gazteriaren Kontseiluan eta abarretan ere.

Ingurune ireki, inklusibo eta irigarrietan enplegua **bermatzea**.

Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legea onartzea desgaitasuna duten gazteei aitortzen zaizkien eskubideen gauzapean aurrera egiteko lehen urratsa izatea espero du **Elkarteanek**.



MINBIZIA EDO GAIXOTASUN LARRIA DUTEN HAURRENTZAKO LAGUNTZAK LUZATZEA

2022ko urte honetarako, luzatu egin da minbizia edo gaixotasun larria duen semea edo alaba zaintzeko prestazioa, 23 urtera iritsi arte, lehen, adin-nagusitasunera arte kobratzen baitziren laguntzak.

Gurasoen, adoptatzaileen edo harreragileen **diru-sarrerengalera konpentsatzean** datza laguntza hori, haien lanaldia eta, ondorioz, soldatak murriztu behar baitituzte seme-alabak zuzenean, etengabe eta une oro zaintzeko.

Arau-aldaketa hori ez da nahikoa; izan ere, adin hori betetzen dutenean, batzuek ez dute onera egiten, okerrera egiten dute, gaixotasun neuromuskularra duten pertsonak, esaterako, eta, beraz, zainketa gehiago behar dituzte.

Hori dela eta, oraindik ere ziurtatu behar da prestazioak beharrezko erantzuna emango diela dauden egoera eta beharrezkoak, eta baliabide egokiak eta nahikoak emango dituela desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizi-kalitatea bermatzeko.



DESGAITASUNAREN BAREMO BERRIA

Eginaren eginezek iradokizunak egin ditu desgaitasun-maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen Errege Dekretuaren Proiektuaren jendaurreko entzunaldia-zen izapidean.

Besteak beste, honako hauek eskatu ditugu:

- Talde teknikoetan eta balorazio-organoeetan gutxienez mediku bat, psikologo bat, gizarte-langile bat eta fisioterapeuta bat **egotea**.
- Desgaitasunaren balorazio-prozedura ebazteko **gehieneko epea** 3 hilabetekoa izatea, eta ez 6 hilabetekoa, Proiektuak finkatzen duen moduan.
- 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskinaren arabera mugikortasun-baremoan gutxienez 7 puntu aitortuta dituzten **pertsonek** aitortpen horri eustea, balorazio berririk egin beharrik gabe.

Gainera, balorazioa bitarteko telematikoen bidez egin ahal izateko aukera aurreikusten du Proiektuak, eta geroko arau-garapen baten bidez zehaztuko da bitarteko telematikoak noiz erabili ahal izango diren. Gure ustez, horrek ez du bermatzen balorazio egokia egingo denik, eta, horregatik, **eginaren eginezek** alegazioa egin du aukera hori salbuespenezkoa izan dadila eskatzeko (desgaitasun-maila baloratzeko edo berrikusteko eskatzen duen pertsonak hala eskatuta soilik), eta, nolana ere, diagnostiko okerra dela uste izatea, baldin eta pertsona ez badago ados modu horretan egin zaion balorazioarekin (hala bada, dena dela, nahitaezkoa izango da beste balorazio bat egitea, eta berrikuspenerako ez da 2 urte itxaron beharko).

BOLUNTARIOEN AZOKA

Igandean, ekainak 5, Batekin, Arabako Boluntario Agentziak antolatutako I. Boluntario Azokan parte hartu zuen **eginaren eginezek**, Aiarako bailarako elkarteekin batera.

Laudioko Aldai plazan hainbat eremutako gizarte-eraldaketako ekimenak eta eskualdeko elkarreetan boluntarioritza aritzen garen bizilagunen esperientzia ezagutzeko gune bat sortu zen.

Jai-egun horretan, elkarreok gure proiektuak erakusteko standez gain, adin guztietako pertsonen parte hartu ahal izan zuten, kolektiboen aldarrikapenak ezagutzeko.



LANERAKO EZINTASUNA ETA DESGAITASUNA PAREKATZEA

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina aldatzen duen Lege Aurreproiektuak, oro har, lanerako ezintasuna eta desgaitasuna parekatzen ditu; izan ere, lanerako ezintasun iraunkorra (osoa, absolutua edo baliaezintasun handia) aitortuta duten pertsonak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsonatzat hartzen ditu lanerako eskubidearen ondoretarako eta desgaitasuna duten pertsonen aukeraberdintasunerako eskubidea bermatzeko eta gauatzeko neurrien ondoretarako.


Jendaurreko informazio-denboraren barruan, **eginaren eginez**ek alegazioak egin dizkio aipatutako aurreproiektuari, parekatze horren aurka eginez; izan ere, desgaitasuna duten pertsonentzat diskriminatzailea dela uste dugu, desgaitasuna duten pertsonentzako onurak eta neurri positiboak (batez ere enplegurako eskubideari dagokionez) eskuratzeko aukera ematen ari baitzaie izaera hori ez duten pertsoneri, arau erregulatzailen espirituaren aurka eta desgaitasuna duten pertsonen kaltetan. Izan ere:

- Lanerako ezintasuna aitortzeko, pertsonak

mediku-epaimahai bat igarotzen badute ere, desgaitasuna aitortzeko prozeduran balorazioa diziplina anitzeko talde batek egiten du, eta prozedurazko eskakizunak eta aplikatzen diren baremoak askoz zorrotzagoak dira desgaitasuna aitortzeko.

- Eta lanerako ezintasun-egoeran dauden pertsonen enplegua lortzeko zailtasun jakin batzuk izan ditzaketen arren, desgaitasun-maila % 33ra iristen ez den heinean, ez dituzte, inolaz ere, maila hori gainditzen duten pertsonen laneratzeko eta enplegua lortzeko dituzten zailtasun berberak.

eginaren eginez ez dago ekintza positiboko neurri espezifikoak ezartzearen aurka lanerako ezintasun-egoeran dauden pertsoneri enplegua lortzen laguntzeko, baina % 33ko desgaitasuna aitortzeko baremoa gainditzen ez duten pertsoneri berariaz desgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko ezarritako ekintza positiboko neurriak aplikatzearen **aurka gaude**, desgaitasuna duten pertsonen kalterako baita.





ARGI IKUSTEN EZ BADUZU, EZ EGIN SALTO

Ba al zenekien bizkarrezur-muineko lesioen % 10 hondartzetan eta igerilekuetan uretara salto egitean gertatzen direla? Eta kaltetuak 16 eta 35 urte bitarteko gazteak izaten direla?

*eginaren eginez*ek, desgaitasun fisikoa duten Arabako pertsonen elkarteak, aurtengo udan bizkarrezur-muineko lesioa prebenitzeko **Argi ikusten ez baduzu**, ez egin salto kanpaina abiarazi du, Gasteizko biztanleriari zuzenduta. Kontzientziazio-kanpaina bat, igerilekuetan, ibaietan, urtegietan edo hondartzetan arretarik gabe uretara salto egiteak eragindako bizkarrezur-muineko lesioak saihesteko.

Buruz salto egiteak edo igerilekuaren, portuen edo itsaslabarren ertzean ekintza arduragabe batek eragindako kolpeak nahi gabeko ondorioak eta ondorio konponezinak izan ditzake, batez ere kontrolatu gabeko espazioetan edo beharrezko oinarritzko ezagutzarik gabe egiten bada.

Izan ere, urtero, hondartzetan, igerilekuetan, urtegietan eta abarretan hamarnaka saltok, hezur-hausturak, giharretako lesioak, garezur edo garuneko traumatismoak edo heriotza ere eragiten dute.

Ondorio larrienetako bat (eta uste baino ohi-koagoa) bizkarrezurreko kolpeena da. Inpaktu horiek hemiplegia, paraplegia edo tetraplegia bihur daitezke bizkarrezur-muinari eragiten badiote, eta itota hiltzea ere eragin dezakete, giharrek berehala gelditzen baitira.

Argi ikusten ez baduzu, ez egin salto kanpainaren asmoa da zuhurtziagabeko murgilketak eta horien ondorioak geldiaraztea. Kanpainaren barruko ekintzetako bat kartel bat diseinatzea izan da. Kartel hori hiriko hainbat tokitan, igerilekuetan eta zentro zibikoetan jarri da. Kartelean Qr kode bat dago, <https://eginez.org/saltaconcabeza/eu/> webgunearen helbidearekin. Bertan, prebentzioko jarraibide eta aholkuei buruzko atal bat narmentzen da.

Argi ikusten ez baduzu, ez egin salto mezu labur eta zuzena da.

*eginaren eginez*ek aurtengo udan, arrisku-jokabideak eta, batez ere, zuhurtziagabeko jauziak saihesteko aholkatzen dizu.



ELKARTEEN JARDUNALDIA

Ekainaren 9, 10 eta 11n, LANKIDETZA BALIO ERALDATZAILE GISA elkarteek jardunaldia izan da, Gasteizko Udalak sustatua, eta bertan **eginaren eginez** parte hartu du, honako helburu hauek lortzeko:

- Hirugarren sektorearen garrantzia **agerian uztea**, publikoak ez diren eta irabazi-asmorik ez duten erakunde guztiena, gizarte-ekintzako proiektuak egiten ditugunena, gure kolektiboan interesak defendatuz eta gizartearen zeregin estrategikoa betez.
- Gasteizko elkarte-sarearen indarra **ikusaraztea**.
- Lankidetzaren balio eraldatzaile gisa **nabarmentzea**: gizarte justuagoa, berdintasunekoagoa, inklusiboagoa eta anitzagoa eraikitzeko lankidetzan aritzeko beharraz eta aukeraz kontzientziatzea.

Amaitzeko, hilaren 11n **Elkarteen Azoka** egin zen Europa Jauregiko Olarizu Aretoan, herritar guztientzako. Bertan, elkarteek standak antolatu genituen egiten dugun lanaren berri emateko eta esperientziak partekatzeko.



KOMUN PUBLIKOAK

Adinekoen eta Osasun eta Kontsumoaren Elkargunean parte hartu du **eginaren eginez**. Ekimen bat onartu da, Gasteizko Udalaririk ezaugarri espezifiko batzuk betetzen dituzten komun publiko gehiago jartzea eskatzeko; gainera, hiriko mapetan adieraztea ere eskatu zaio, guztien eskura egon daitezen.

Espazio publikoetan, udal-instalazioetan eta erakundeetan herritar guztientzako komun irisgarriak egotea eskatu da. Eratzun Berdean horrelako komunak egotea ere eskatu da.

Horrez gain, eskatu da komunak irisgarriak izan daitezela mugikortasun urriko pertsonentzat edo itsuentzat, haurtxoentzako aldagailuak izan ditzatela, argiztapen nahikoa izan dezatela, komunontziak eta konketak izan ditzatela edo garbi egon daitezela, besteak beste.

Udalak dagoeneko iragarri du ezaugarri horiek dituzten komun publikoak jarriko dituela Salburua, Zadorra eta Zabalganako parkeetan.



ETXEBIZITZA EGOKITUAK

Gasteizko Olarizu hiribidean (“ARITXI GASTEIZ”), mugikortasun urria duten pertsonentzako bi etxebizitza egokituren eta beren eranskinen (garahea eta trastelekua) sustapen berria.

www.eginez.org gure webgunean, etxebizitzaren, garaheen eta trastelekuen ezaugarriak dituzu, baita erreserbatutako eta 68/2000 Dekretuak eskatzen dituen irizpide teknikoetara egokitutako higiezinaren eta eranskinen planoak ere.

HIGIEZINEN EZAUGARRIAK



2. ATARIKO ETXEBIZITZA:

- 2. ataria, 1. B - 2 logela
100,87 m² eraikita eta 85,74 m² erabilgarri
- 4. garahe-plaza -1 sotoan
24,3 m² eraikita eta 18 m² erabilgarri
- 15. trastelekua beheko solairuan
9,39 m² eraikita eta 7,99 m² erabilgarri

PREZIOA

- 218.500 € + % 10eko BEZA



4. ATARIKO ETXEBIZITZA:

- 4. ataria, 1. B - 2 logela
102,29 m² eraikita eta 85,04 m² erabilgarri
- 56. garahe-plaza -1 sotoan
18,18 m² eraikita eta 18 m² erabilgarri
- 55. trastelekua -1 sotoan.
9,01 m² eraikita eta 6,73 m² erabilgarri

PREZIOA

- 222.500 € + % 10eko BEZA

Inmobiliaria Pantikosa-Gauna ari da merkaturatzen. Gasteizko Jesus Guridi kaleko 6. zenbakian du bulegoa, eta **harremanetarako telefonoa: 945 27 11 00 da.**

| Bizkaia |

ENPLEGUA FEKOOREKIN

Fekoorreko Lan-arloko Orientazio eta Bitartekaritza Zerbitzuak 67 pertsona (29 gizon eta 38 emakume) laneratzea lortu du aurtengo urtariletik maiatzera, ia zko aldi berean baino % 55,88 gehiago, urte horretan 43 pertsonarentzako lana lortu baitzuen.

Gainera, kontratu mugagabeak ugaritu egin dira, lan-erreformaren, enplegu-arloko egonkortasunaren bermearren eta lan-merkatuaren eraldaketaren ondorioz. Erreformatarekin desgaitasuna duten pertsonentzako kontratu motak aldatu ez diren arren, bost hilabete hauetan 16 kontratu mugagabe lortu dira, iaz baino 10 gehiago.

Fekoorren lan-poltsan 2.764 pertsona daude izena emanda, 2022an 81 enpresarekin harremanetan jarri da eta 46 lan-eskaintza kudeatu ditu. Lanpostuen profilak honako hauek dira: administrazioko langileak, hizkuntzak dakizkitenak, gizarte-integraziokoak, gidariak, industriakoak, garbiketala-landetakoak eta zerbitzu osagarrietakoak.



2021EKO JARDUEREN MEMORIA

2021ean, **Fekoorrek** 1.567 pertsona artatu zituen (822 emakume eta 743 gizon), eta gogobetetasun-indizea % 91koa izan zen. Zerbitzuak kontuan hartuta, Arbolartek 57 pertsona artatu zituen eta Etxegokik 42. Bestalde, Gizarte Lanak 140 pertsona hartu zituen aurrez aurre, 3.002 telefonoz eta beste 198 online. Aholkularitza Juridikoak 224 kontsulta izan zituen, laguntza psikologikorako programak 58, Sancho Azpeitiako tailerrek 127 pertsonari eman zizkieten eskolak eta SAVik 36 pertsonari eman zien laguntza.

BILBOKO TAO BERRIA

Bilboko aparkalekuei buruzko ordenantza berriak lehenatasuna ematen die mugikortasun urria duten pertsonari. Ordenantza joan den martxoan onartu eta 2023ko irailean jarriko da indarrean. Horrela, aparkalekuetan plaza berriak daude orain mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzako, igogailuekin zuzeneko irisgarritasuna baitute; gainazalean, berriz, “M” txartela duenak mugikortasun urriko pertsonentzako eremuetan aparkatu ahal izango dute, ordutegi-mugarik gabe eta erabat doan.

Gainera, Europako Aparkaleku Txartela dutenek bi orduz aparkatu ahal izango dute doan, eta, epe hori igarotakoan, dauden sektorearen eta eremuaren baldintzak aplikatuko zaizkie. Gainerako eremuetan, berrikuntza gisa, mugikortasun urria duten pertsona guztiek doan aparkatu ahal izango dute bi orduz. Neurri horiekin aurrera egin dugu desberdinkeriekin amaitzeko bidean.



EMAN ESKUIA

ZORIONAK BENE ETA EMAN ESKUARI

Zorionak aurten 25 urte bete dituen BENEri eta 18. urteurrena bete duen EMAN ESKUARI. Eskerrik asko Fekoorrekin eta gure kolektiboarekin duzuen inplikazioagatik eta konpromisoagatik.

GIZARTE-MENTORETZA

Fekoorrek Gizarte Mentoretzako Estatu I. Kongresuan parte hartu zuen maiatzean. Bertan, Bizinde proiektua eta gure erakundeak abian jarritako mentoretza-sarea aurkeztu genituen. Esku-hartze sozialeko tresna honen aldeko apustua egin dugu, desgaitasuna duten boluntarioek beste pertsona batzuei lagun egin diezaieten, berdinaren arteko harremanean, hazkunde pertsonalean eta bizimodu independentean aurrera egin dezaten. Mentorea edo mentoretzapekoa izan nahi duenak Bizinderekin jar daitezke harremanetan (Deustuko Sancho Azpeitia kalea 2, Bilbo) edo [94.432.67.47](tel:94.432.67.47)/[652.98.50.26](tel:652.98.50.26) telefonora deitu dezake. Bestela, email bat bidal dezake bizinde@fekoor.com helbidera.



PRAKTIKAK TRUKATZEA

Fekoor maiatzean eta ekainean Erromara eta Soutonsera (Frantzia) joan zen, hurrenez hurren, Europako beste kolektibo batzuekin praktiken truke batean parte hartzeko, desgaitasuna duten pertsonen beren garapenean eta ahalduntzean laguntzeko, bizimodu independentearen arloko eskubiak lor ditzaten.

Fekoor, Agricultura Capodarco (Italia) eta AEHM eta Lilleko Unibertsitatearekin (Frantzia) batera proiektuan esku hartzen duten erakundeak errealitate batetik abiatzen dira: 'lan egiteko ezgaitzat' jotzen diren desgaitasuna duten pertsonak, are baztertuagoak daude, lantokitik kanpo uzteak edozein gaitasun-eremutatik kanpo uzten dituelako. Hala ere, jakin badakite, beste guztiek bezala, balioak, gaitasunak, jakinduria eta pertsona arteko trebetasunak dituztela, eta horiek garatu eta gizartearen zerbitzura jarri ahal izatea aldarrikatzen dute. **Eta orduan bakarrik hitz egin ahal izango dugu berdintasunaz.**

HONDARTZA DENONTZAT HONDARTZA-ZERBITZUA


Fekoorrek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dio hondartzen zerbitzua berdina izan dadila mundu guztiarentzat; izan ere, aurten, mugikortasun urria eta behar bereziak dituzten pertsonak uztailaren 1etik irailaren 31ra arte bakarrik bainatu ahal izango dira lagunduta. Gainerako pertsonentzat, berriz, ekainaren 1ean hasi zen denboraldia.

Hondartzako denboraldia hilabete atzeratzeko argudioa uraren tenperatura oso baxua dela da, eta horrek indarrean dagoen legedia urratzen du eta hondartzako aisialdiaz gozatzeko tratu-diskriminazioa dakar.

Gainera, gure kolektiboak bainua noiz hartu nahi duen erabakitzeko eskubidea du, gure bizitzaren erantzule garelako; eta ez da egon behar tratu mediko-asistentzialik, hau da, paziente edo zerbitzuen onuraduntzat hartzen gaituen traturik.

Fekoorreko Irisgarritasun Batzordeko kideak Bizkaiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru

Sailarekin bildu ziren maiatzean, eta hainbat proposamen egin zizkieten **Hondartza denontzat** zerbitzua hobetzeko. Horien artean, lagundutako bainu-zerbitzua ekainaren 1etik irailaren 31ra luzatzeaz gain, aldagailu inklusiboak, komun irisgarriak eta lekualdatzeko elementu mekanikoak instalatzea, bai eta zerbitzu hori duten hondartzen kopurua handitzea ere, horien artean Gorlizekoa, gaur egun dauden 23 hondartzetatik 6tan baino ez baita eskaintzen.



BBC BARTZELONA I. KONGRESUA

Fekoor maiatzaren 28an Bartzelonan izan zen, BBC 2022 I. Kongresuan (Breaking Barriers Congress), laguntza eta komunikazio handigarriko teknologiar buruzko ekitaldi batean. Bertan, arlo bakoitzeko nazioarteko aditu handienak, profesionalak, erabiltzaileak, familiak, enpresak eta erakundeak bildu ziren.

Kongresuan irtenbide teknologiko onenak erakutsi ziren, eta, bereziki, inklusiorako eta partaidetzarako teknologia aplikatzeko esperientzia onenak. Hain zuzen ere, **Fekoorrek** Arbolarte eguneko zentroan desgaitasuna duten pertsonekin teknologiararen erabileran jorratutako esperientzia eta kasu zehatzen berri eman zuen, baita teknologiek gizartearatzeko eman dizkieten aukeren berri ere.

EZTABAIDA ZIBILERAKO BIZKAIKO MAHAIA

Eztabaida Zibilerako Bizkaiko Mahaian 2022an lan egiteko eratu diren hiru batzardeetan parte hartzen dugu:

- 1. Mahaia:** inguruko errealitate sozialen azterketa.
- 2. Mahaia:** BFAko sailetan sortzen diren eta zeharkakoak diren arau-kontsultak kudeatzea.
- 3. Mahaia:** Gizarte Zerbitzuetako arretan beharrezkoak diren eskubide sozialak errespetatzearekin lotutako hobekuntzak identifikatzea.

Gure partaidetzaren bidez, desgaitasuna duten Bizkaiko emakume eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten ekarpenak egin nahi ditugu, beren bizi-proiektua bizimodu independentean oinarrituta garatu ahal izateko.

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Urrian Ondarearen Europako Jardunaldiak egingo dira Bizkaian, eta, bertan, **Fekoorrek** parte hartuko du berriro, Irisgarritasun Batzordearen eta erakundearen aisialdi-programaren bidez.

GIZATEK LAGUNTZA- PRODUKTUETARAKO LAGUNTZAK



2022ko urtarrilaren 11ko BAOn Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu berri bat argitaratu da, 2022-2023 urteetan laguntza-produktuak erosteko diru-laguntzak eskuratzeko oinarriak onartzen dituena.

Norbere burua zaintzeko, mugikortasunerako, etxebizitza eta ibilgailuak egokitzeko, gurpil-aulkietarako, osagarrietarako eta abarretarako **laguntza-produktuen katalogo zabal** da.

Laguntza emateko, lehenik eta behin, ontzat emandako egokitasun-txosten bat izan behar da, eskatutako dirulaguntza beharrezkoa eta egokia dela egiaztatzen duena. Eman beharreko zenbatekoa zehazten den bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren arabera izango da.

Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago eta 2023ko abenduaren 30ean amaituko da.

Berritasunetako bat da dirulaguntza jasoko duten laguntza-produktuak dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu aurreko 12 hilabete naturalan, eta laguntza emateko foru-agindua jakinarazi eta hurrengo 4 hilabeteetan erositakoak izango direla.

BILERA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUAREKIN

elkartu Maite Peña Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatuarekin bildu zen ekanean, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat garrantzitsuak diren hainbat gai aztertzeko.


Horrela, Federazioak **BIZIMODU INDEPENDENTEAREN PROGRAMA BULTZATZEKO** beharra planteatu zuen, oinarrizko eskubidetzat oso onartua dagoen ereduaren alde Gipuzkoako Lurraldeak hartzen duen konpromisoaren erakusgarri. Eredu horrek desgaitasuna duten pertsonen askatasunez aukeratzea eta gizarteratze osoa lortzea bermatu nahi du.

Horretarako, hainbat neurri eta ekintza proposatu genituen, hala nola eragileen artean ezagutza sustatzea, aurrekontuzuzkidura handiagoa izatea, desgaitasun fisikoa duten ahalik eta pertsona gehienei zabaltzea, ikerketa-proiektuak garatzea, desinstituzionalizazio-neurriak hartzea edo bizimodu independenterako eredia

bultzatzen laguntzen duten proiektu esperimentalen aldeko apustua egitea.

Desgaitasuna baloratzeko prozeduretan gertatzen ari dena ere aztertu genuen. Prozedura horiek atzerapen handiak izaten dituzte, eta horrek kalte egiten die desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei. Eta administrazio-prozesu arinagoak eta eraginkorragoak bermatzeko beharra are garrantzitsuagoa da orain, laster onartuko baita desgaitasun-egoerak baloratzeko prozedura berria arautzen duen dekretua, eta hori erronka handia da.

Azkenik, Federazioak erabateko prestutasuna erakutsi zuen Gizarte Politiketako Departamentuarekin batera elkarlanean aritzeko, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioarekin bat datozen politika publikoak diseinatu eta garatzeko, elkarlaneko gobernantzaren esparruan.



ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO PROZESUA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen helburua da egiturazko behin-behinekotasunaren tasa ehuneko 8tik behera kokatzea administrazio publiko guztietan; horretarako, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea aurreikusten du.

Horrela, erakunde publikoek prozesu horiei ekin diete, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko lan-eskaintzak argitaratu dituzte horretarako.

Deialdiak aztertu ondoren, egiaztatu da udalerrri askok ez dutela aurreikusten desgaitasuna duten pertsonentzako kupo bat gordetzea, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako baldintzetan.

Horregatik, **elkartuk** hainbat administrazio-errekurtso aurkeztu ditu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoa betearazteko. Legegintzako Errege Dekretu horren 59.1 artikulua honako hau ezartzen du:

“enplegu publikoko eskaintzetan, lanpostu hutsen ehuneko zazpi gordeko da gutxienez desgaitasuna duten pertsonak betetzeko”.

Horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarri batean lan egiteko duten eskubidea bermatu nahi da. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan hala aitortuta baitago. Era berean, administrazio publiko bakoitzean desgaitasuna duten langileak gutxienez % 2 izatea lortzeko bidean aurrera egin nahi da.

BILERA MUGIKORTASUNEN ZINEGOTZIGOAREKIN

Joan den martxoan, **elkartuk** lan-bilera bat egin zuen Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailarekin, desgaitasuna duten pertsonentzat interes berezia duten hainbat gai aztertzeko.

Horrela, mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako lekuak arautzen dituzten arauak, bai aparkalekuen gutxieneko ehunekoari buruzkoak, bai horien ezaugarri teknikoari buruzkoak (kokapena, neurriak, ingurunea, seinaleak, etab.) betetzen direla bermatzeko neurri egokiak bultzatu beharra planteatu genion.

Gai horri dagokionez, Udalak aplikazio bat diseinatzeko ari dela jakinarazi zigun erreserbatutako plazak monitorizatzeko, mugikortasun urria duten pertsonen erabilgarri dauden ala ez jakin dezaten.

Udalak hiriko mugikortasun-eredu berriari buruz emandako aurrerapenari dagokionez, Federazioak mugikortasun urria duten pertsonen aldeko ekintza positiboko neurriak hartzeko beharra planteatu zion, mugikortasun pertsonalerako eskubiderik gabe gera ez daitezela. Mugikortasun Sailak konpromisoa hartu zuen **elkartuk** Donostiako hiri-mugikortasunaren konfigurazioa eraldatzea helburu duen mugikortasun-eskema berri bat eztabaidatzeko eta diseinatzeko prozesuan parte hartuko zuela bermatzeko.

Azkenik, mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako bizikletak alokairuko zerbitzu publikoan sartzea proposatu genion, desgaitasuna duten pertsonen zerbitzu publiko horretaz gainerako herritarren baldintza berberetan gozatu ahal izan dezaten.

PARTE-HARTZE PROZESUA: DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZAK

Aurreko urteetan bezala, elkartuk partaidetza-prozesu bat abiaraziko du, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubide eta bizi-kalitaterako garrantzitsuak diren gaietarako proposamenak, iritziak eta ekarpenak biltzeko; ondoren, egingo den eragin politikoko lanean txertatuko dira.

Oraingo honetan, prozesuak bizimodu independenterako eskubidea eta autonomia pertsonala bermatzeko behar den laguntza-sistema aztertuko du. Hala, honako gai hauek planteatuko dira: desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako laguntzen paradigma, beharrezko laguntza pertsonal eta teknikoaren motak, bizimodu independenterako ereduaren sustapena, laguntzaile pertsonalak, zuzeneko ordainketaren eta zerbitzuaren arteko bikoiztasuna, etab.

Parte hartzeko prozesua bi fasetan garatuko da. Lehenengoan, online galdetegi bat zabalduko da, desgaitasuna duten pertsonen balorazioak eta laguntza-sistemari buruzko informazioa eman ditzaten. Bigarren fasean, azterketa- eta eztabaida-tailer bat antolatuko da, galdetegitik eta bertan planteatutako gaietatik ondorioztatzen diren gaietan sakontzeko.

Amaitzeko, txosten bat egingo da, prozesuaren xedea, metodologia, jorratutako gaiak eta ondorioak bilduko dituen, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako laguntza-sistemaren diseinuan eta garapenean esku hartzen duten erakunde eta eragile guztiekin partekatu ahal izateko.

Prozesu horretan parte hartzera animatzen zaituztegu. Prozesuan, zalantzarik gabe, gai garrantzitsuak landuko ditugu, desgaitasuna duten pertsonen, komunitatearekin bat eginda, bizimodu duina izateko duten eskubidea bermatzeko.

BIDE PUBLIKOAN DAUDEN TERRAZEI BURUZKO ORDENANTZAK

Azken hilabeteetan, hainbat udalerrik bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzea arautzen duten ordenantzak onartu dituzte. Federazioak alegazioak aurkeztu ditu aipatutako arauak onartzeko prozesuaren barruan; izan ere, gai garrantzitsua da mugikortasun urria duten pertsonentzat, espazio publikoak elementu horien instalazioaren ondorioz jasaten ari diren bilakaera kontuan hartuta.

Horrela, aurkeztutako alegazioak funtsezko bi alderdi bermatzera bideratuta egon dira:

- Instalatu beharreko elementuek irisgarritasunaren arloko arau teknikoetan **ezarritako baldintzak betetzea**.
- Instalatu beharreko elementuetan **diseinu unibertsalaren printzipioa** aplikatzea, pertsona guztiek erabili ahal izan ditzaten.

elkartuk bere eragin-lanarekin jarraituko du, mugikortasun urriko pertsonen espazio publikoaz segurtasun, berdintasun eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan gozatu ahal izatea bermatzeko.

ITZULI DIRA ELKARBIDEAN PROGRAMAKO BIDAIAK

Aurreko bi urteetan, pandemiaren ondorioz egin ezin izan den arren, elkartuk Elkarbidean programa antolatu du berriro, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuarekin lankidetzan.

Horrela, hainbat bidaia-txanda antolatuko dira desgaitasun fisiko, organiko edo sensoriala duten pertsonen aisialdirako eskubidea bermatzeko; izan ere, programa honegatik ez balitz, ezingo lukete baldintza berdinetan bidaiatu.

Elkarbidean 2022 programak honako helmuga hauek eskaintzen ditu:

- Benidorm, ekainaren 4tik 18ra
- Salou, uztailaren 2tik 16ra
- Salou, abuztuaren 20tik irailaren 3ra
- Andaluzia, irailaren 24tik urriaren 1era
- Benidorm, urriaren 15etik 29ra

Hautaketan lehenetsuna izango dute desgaitasun handiena, mugikortasun urria edo premia bereziak dituzten pertsonak, hala nola baliabide ekonomikorik ez dutenak, etab. Txandetan honako hauek sartzen dira: hotel irisgarrietako egonaldia (ezin da bermatu gela egokituak esleitzea), autobus egokituaren erabilera, laguntzaileak.

Elkarbidean programaren bidez, desgaitasuna duten pertsonak aisialdia izateko eta aisialdiaz gainerako herritarren baldintza berberetan gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 30. artikulua betetze aldera.





ALTZAKO POLIKIROLDEGI BERRIA

Joan den apirilean Alzako polikiroldegi berria inauguratu zen, instalazio eta zerbitzuen bidez Donostiako auzo honetako biztanleen kirol-beharrei erantzuten dien ekipamendua.

Desgaitasuna duten pertsona batzuen keak jaso ondoren, **elkartuk** kirol-instalazioaren irisgarritasun-baldintzak aztertu zituen, eta, besteak beste, honako gabezia eta ez-betetze hauek egiaztatu zituen:

- Kiroldegiaren kanpoaldean ez da ikusmen-urritasuna duten **pertsonentzako seinale-bandarik jarri**.
- Kanpoaldean dagoen arrapalak **ez du barandarik** bi aldeetan.

- Kristalezko atek ez dute **automatikoki irekitzeko sistemarik**, eta ez dute **kontraste kromatikorik**.
- Atarian ez dago instalazioan dauden elementuak eta horien kokapena jasotzen dituen **planorik eta maketarik**.
- Ez dira betetzen mugikortasun urria duten pertsonentzako legez ezarritako **komunen** erreserbak.
- Komunetako eta aldageletako atek dituzten barrualderantz **irekitzeko sistemak eta atek automatikoki** ixteko sistemak zaildu egiten du mugikortasun urriko pertsonen erabilteza.
- **Txorrotak** presio-sistema bat du, aginte bakarreko sistema edo sistema automatikoa eduki ordez.
- Gimnasioan ez dago mugikortasun urriko pertsonentzako **makinarik edo ekipamendu irisgarririk**.
- Elementu jakin batzuen **altuerak** (esekitokiak, paper-banagailuak, xaboi-ontziak, etab.) ez ditu betetzen irisgarritasunari buruzko arau teknikoak.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako **dutxek** ez dute eserlekurik.
- Ez dago piktogramen edo irudien bidezko **seinaleztapenik** adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat.

Gabezia horiek Donostiako Udalari bidali genion txosten batean adierazi ditugu. Erakunde horri beharrezko neurriak hartzeko eskatu diogu, pertsona guztiak inauguratu berri den kirol-instalazio hori berdintasun-baldintzetan erabili ahal izan dezaten bermatzeko.